

1.GAIA:

Hezkuntza Soziopertsonalaren sorrera eta garapena.

M. A. De la Caba eta R. López Atxurra

Hezkuntza Soziopertsonala.

Aurkibidea

Sarrera	19
Helburuak	20
1. Hezkuntza Afektiboaren sorrera, aldaketa politikoen, zientifikoaren eta sozialen bateratze-prozesuan	21
2. Hezkuntza Afektiboa, gizarte-aldaketen testuinguruan	23
2.1. Gizartearen beharrak eta heziketaren helburuak	23
2.1.1. Gizarte tradizionaletik industria-gizartera	24
2.1.2. Azaleratzen ari den gizarte konplexuaren ezaugarriak	25
2.2. Azaleratzen ari den gizarte konplexu baten heziketa-erronkak	28
2.2.1. Agertoki publikoan gertaturiko aldaketek ekartzen dituzten errokkak	28
2.2.2. Arlo pribatuan gertatutako aldaketek ekartzen dituzten errokkak	30
3. Hezkuntza Afektiboa, zientzia- eta pedagogia-ikusmoldeetan gertatutako aldaketen testuinguruan	31
3.1. Zientzia-ikusmoldeetan gertatutako garapenaren oinarritzko jarraibideak	31
3.2. Hezkuntza Afektiboaren garapena, testuinguru psikopedagogikoan.	33
Jarduera	38
Nork bere burua ebaluatzeko jarduerak	41
Bibliografia	42

Hezkuntza Soziopertsonala.

Sarrera

Gizarte postindustrialak eta azken urte hauetan “hirugarren uhina” deiturikoak gizarte-errealitate berria mahairatzen dute eta, era berean, hezkuntzari erronka berriak ekartzen dizkiote. Aldaketa sozialak agertzen diren heinean, ikuspegi psikopedagogikoak eta zientifikoak malgutzen hasten dira, eta, horrela, hainbat gai ikastea –besteak beste, gai sozioafektiboak– errazten da.. Sorturiko erronken erantzun gisa agertzen da Hezkuntza Afektiboa; bateratze-prozesurik gabe, ez litzateke posible izango; bateratze-prozesu horiek 1960eko hamarkadatik aurrera gertatu ziren.


Helburuak

- Zeintzuk dira garapen soziopertsonalaren balioetan eta trebetasunetan heziketa baten beharra eragin duten aldaketa sozial nagusiak?
- Zeintzuk dira garapen sozioafektiboaren fenomenoak ulertu ahal izateko teoria zientifikoak ahalbidetu dituzten zientzia-faktoreak?
- Zertan dira berdinak eta zertan desberdinak garapen sozioafektiboari buruzko azalpen psikopedagogiko garrantzitsuenak?

1. Hezkuntza Afektiboaren sorrera, aldaketa politikoan, zientifikoan eta sozialen bateratze-prozesuan.

XX. mendearen hasierako hamarkadetan, 1940. urtera arte gutxi gorabehera, hezkuntza afektiboari funtsezko betebeharra eman zioten zenbait mugimenduk, Hezkuntza Berriaren ikuspegi liberal-aurrerazalearen eraginari esker (Filho, 1993); gerora, Hezkuntza Afektiboa baztertua geratu zen, 1960ko hamarkada arte. ,

Berpiztearen eta Hezkuntza Afektiboarekiko interesa berriz agertzearen arrazoiak mendebaldeko gizarteetako aldaketa sozialak, psikopedagogikoak eta gertaera politiko-legezkoak dira.



60ko hamarkadan, gizarte konplexu eta demokratikoen arlo pribatuetan zein publikoetan gertatutako aldaketek –lan egiteko eran, bizitzeko eran eta erreferentzia-puntuetan– beharizan sozial berriak sorrarazi zituzten. Aldaketa horiek, era berean,

hezkuntzari–ezagutza nahiz giza garapen mailan heziketa zabal bat eskaini ahal izateko– erronka gogorrek ekarri zizkioten.

Era berean, ikusmolde zientifikoek ezarritako oztopo mugiezinak gainditzeakarlo psikopedagogiko garrantzitsuen hedapena erraztu zuen, 1960ko hamarkadatik aurrera. Arlo horietako bat sozioafektiboa da, zeina lehenago baztertua geratu baitzen “objektibotasun-” eta “zientifikotasun-parametroen bidez aztertu ezin zitekeelako.

Irizpide zientifikoek malgutasunak posible egin zuen prisma psikopedagogikoa hedatzea, eta ikerketa aplikatuaren bidez garapen sozialerako eta afektiborako programak sortzen hasi ahal izatea. Era horretan, ekarpen psikologikoak eta pedagogikoak gizarte-eskaera berriei erantzunak emateko moduan geratu ziren.

Aldaketa sozialek eta zientifikoek izugarrizko garrantzia izan arren, aldaketa horiek ez lirateke aski izango, aldeko hezkuntza-politikarik eta legeriarik gabe. Zentzu horretan, hezkuntza-politiken zuzendaritzak, heziketa sozioafektiboa gehiago onartuz –nahiz eta teorikoki izan–, paper garrantzitsua jokatu du hezkuntza-curriculumaren baitan eduki sozioafektiboak barneratzen, eta horretan darrai. Izan ere, 80ko hamarkadatik aurrera mendebaldeko herrialdeetan hezkuntzan gertatutako berrikuntzek erronka berriak islatzen dituzte curriculum-diseinuetan.

2. Hezkuntza Afektiboa, gizarte-aldaketen testuinguruan.

XXI. mendearen hasierako norbanakoaren heziketak zenbait galdera eta arazo nabarmentzen ditu. *Gizarte-agertoki-aldaketak* eta “*etorkizunaren zorabioak*” sorrarazten duten ziurtasun ezaren ondorio dira arazo eta galdera horiek.

Gaur eguneko gizartea gizarte konplexua da, non oraindik *gizarte industrialaren zenbait bereizgarriak dirauten* eta, era berean, *bereizgarri berri batzuk ere eratzen doazen* zenbait gertaera direla medio. 60ko hamarkadaz geroztik, *gizarte postindustrialak* eta azken urte hauetan “*Hirugarren uhina*” deiturikoak *heziketa-erronka berriak eta gizarte-errealitate berri bat proposatzen dituzte eta, hori da, azken batean, Hezkuntza Afektiboaren oinarria eta garapena lekutzen dituen esparrua.*

Oharra:

Faure-k azaldutako esamoldea. Faure, E. (1973): “Aprender a ser. La educación del futuro”. Madrid-Alianza Universidad. 156 or.

2.1. Gizartearen beharrak eta heziketaren helburuak.

Heziketak beti bete izan du gizarte-funtzio garrantzitsua. Baina, gizartea eraldatzen doan heinean, hezkuntzari dagokion funtzio soziala ere aldatu egiten da. Gizartearen eta hezkuntzaren artean egon beharko lukeen erlazioa zehazteko zailtasuna da arazoa. Egia esan, hezkuntzak gizarteko beharrei erantzun behar die, baina ez du zertan zenbait errealitate- eta gizarte-egoera konpentsatu.

Dena den, hezkuntzaren erronkak eta garai bakoitzean indartzen diren trebetasunen/ balioen multzoa ulertu ahal izateko testuingurua da gizartea. Arrazoa oso sinplea da: *gizartearen aldaketak hezkuntzan islatzen dira*. Hau da, pertsona gizarteari zerbait eskaintzeko gai izan dadin prestatzeak hainbat esanahi biltzen ditu bere baitan, testuinguru sozialaren arabera.

2.1.1. *Gizarte tradizionaletik industria-gizartera.*

Kultura tradizionaletik gaur eguneko kulturara emandako urratsa industrializazio-prozesuak markatua dago zalantzarik gabe; azken batean, prozesu desberdina da kontinente eta herrialde desberdinetan. Gaur egun, oraindik ere, *industrializazioaren ondorioek* funtsezko faktore izaten jarraitzen dute testuinguru soziokulturala ulertzeko .

Gomendaturiko irakurgaia:
LOPEZ, R. (1994)
1: *Cultura, sociedad y educación del individuo en la sociedad industrial*,
orrialdeak: 16-36

Tradizioz, gremioz osaturiko gizarte batean (zeina belaunaldi batetik beste batera oso gutxi aldatzen den) familiaren eta komunitatearen esku dago heziketa. Belaunaldi batetik bestera transmititutakoak beharrezkoak diren trebetasunez hornitzen du norbanakoa.

Gizarte tradizionalan, bizitzarako eta lanerako heziketa helduengandik jasotzen da. Horiek dira (helduak, alegia) eduki kulturalak transmititzen dituztenak, beti ere komunitatearen erabilera menderatzaileak baimendutakoak . Ahoz nahiz egiten diren lanekin eta bizitzeko moduarekin harremanetan jarraraziz gertatzen da transmisio hori.

Gizarte industrialaren etorrerarekin, artisautzak langileei eta lantegiei lekua uzten die, baserriko bizimodutik hiriko bizimodura igarotzen da, eta heziketa-funtzioa instituzioen edo erakundeen esku egotera pasatzen da.

Horren aldaketa sakonek pertsonen pentsamoldeak eta mugak zabaltzea eragin zuten, eta bai halaber pertsona horien jarduera sozialak aurrera eramateko guneak ugaritzea eta gizartean bizitzeko beharrezkoak diren ikasketak bereiztea ere. Zeregin horiek guztiak gehiegizkoak dira familiak eta komunitateak aurrera eraman ditzan;

beraz, eskolaren esku uzten dira– Estatuaren babespean hain zuzen–, eta geroz eta handiagoa da familiaren eta eskolaren artean dagoen haustura.

Hezkuntza-erakundea hainbat ohitura eta trebetasun irakasteaz arduratzen da, baina curriculum ezkutuaren (ikastetxean dauden hierarkiak, klasearen antolaketa...), ideien eta balioen bitartez ere egiten du hori. Horrela, zehaztutako orduetan heldzea, obedientzia eta jokabidea ohitzea ere ikasten dira, horiek trebetasun oso erabilgarriak baitira hirigiroa duen gizarte industrialean eta lantegietan sartu ahal izateko.


2.1.2. Azaleratzen ari den gizarte konplexuaren ezaugarriak

Gizadiaren azken hogeita hamar urteetan izandako jokaleku sozialek bestelako gizarte baten sorrera ekarri dute, zeina izen berri batez ezagutua izan den (gizarte postindustrial, teknologikoki aurreratua dagoen gizarte, informazioaren eta komunikabideen gizarte, ezagueraren gizarte, jakintzaren gizarte...). Gizartearen izendapen horien gehiengoak arlo teknologikoan eta ezagutzan jartzen du enfasia, horiek baitirudite gizarte berriaren arlo zuzentzaileak. Hala ere, kontzeptualizazio horiek guztiek izaera murriztailea dute; horregatik, zenbait autore hasiak dira jada “Azaleratzen ari den *gizarte konplexua*”-z hitz egiten, teknologiaz haratago doan errealitate konplexu bat bildu nahian. Azaleratzen ari den gizarte konplexuan erreferentzi puntuak etengabe aldatzen doaz, segurantzak geroz eta arinagoak diren zalantzazko aroei bide ematen ari diren bitartean.

Oharra:

Morin, E. 1994:
*Introducción al
pensamiento
complejo,*
Barcelona, Gedisa

Azaleratzen ari den gizarte konplexuaren ezaugarriak:



Laburpen moduan honako hau nabarmen dezakegu historiaren bizkortzearen bereizgarrietatik: ongizatearen gizartearen krisialdia, ekonomia-munduaren boterea, lan egiteko eta aisialdirako ereduaren edo jarraibideen aldaketak, aldaketa teknologikoak, komunikabideek kulturaren izandako eragina eta demokrazien krisialdia.

Historiaren bizkortzealdi batean aurkitzen gara eta, hala ere, ordena agertu beharrean, mundu mailako nahaspila agertzen da. Badira Erdi Aro berri batez hitz egiten diguten egileak, baina agertoki teknologikoan beti ere. Hirugarren munduko izurriteak eta goseteak Mendebaldeko sofistikazio teknologikoarekin bizikidetzan daude (Japoniako eta Asiako hego-ekialdeko herensugeak deiturikoak barne). Herrialde horietako biztanleok besteen gaitzetatik urruntzen gara (telebistaz ikusten ditugu), eta erosotasun teknologikoez hornitzen dugu geure burua; hala ere, munduko eta gizarteko gai izugarri horiek gudan eragina izaten dute era batean zein bestean.

Garapen material mugagabearen kontzeptua krisialdian dago, Erromako elkartearen txostenetan azpimarratzen diren hazkuntzaren

Oharra:

Campillo, A. (1985): *Adiós al progreso*,
Barcelona, Anagrama

mugak direla eta. Enplegu osoak eta ongizatearen estatuak 70eko hamarkadan eta, batez ere 80koan, beherakada bat jasan dute, langabezia egituratupei, gizartearen maila garrantzitsuen babes ezari (txiro berriak) eta sektore publikoaren pribatizazioa eta estatu minimoa sustatzen duten ideia liberal- kontserbadoreen indartzeari bidea zabalduz. Irakurketa osagarria:

-Mundu ekonomikoak, iragarkien eta kontsumoaren bitartez, eragina du bizitzarengan. Kontsumorako ohitura ekonomikoak pertsonarteko zenbait erlazio eta sozializazio modu eratzten ari dira, eta bai halaber posible denari, beharrezkoa denari eta funtsezkoa ez denari buruzko balio-eskala bat eratzten ere.

-Lan-patroien aldaketa aisialdiaren eta bizitzeko moduen arabera aldatzen doa, eta hori garrantzitsua da sozializazio moduak ulertzeko. Heziketa paralelo bati buruz hitz egin daiteke, zeinak kultura fisikoen, intelektualen, sozialen eta ludikoen hedapenaren arabera (aisialdirako hainbat sarrera eskaintzen ditu) garapen sozialari, kulturalari eta pertsonalari modu askotako sarbideak ematen baitizkio.

-Azaleratzen ari den gizartean, garapen teknologikoa izugarria da, eta gertatzen diren aldaketen ezinbesteko eragileztat hartzen da sarritan. Heziketan parte-hartze erabakigarria duen garapen teknologikoaren zati garrantzitsu bat komunikabideen garapena da eta, oraintsu, baita teknologia berriak sartzea ere.

-Komunikabideen gehiegizko kontsumoak eta erabilerak informazioaz gain bizitzeko era, balio eta jokabide askotarikoak ezagutzeko aukera jarri du erabiltzaileen esku. Egunerokotasunak lapurtu dizkigun bizitzako egoera, emozio eta sentimendueaz gozatzera gonbidatzen gaitu telebistak. Gainera, pertsonaien irudia, estetika, itxaropenak, keinuak eta jokaerak jarraibide hezitzaileen eta kulturalen iturri dira.

IRAKUREGAIA: LOPEZ, R. (1994): 4. atala: 37-47orrialdeak
--

-Politikari dagokionez, *mendebaldeko legebiltzar-demokraziak deiturikoek –teorikoki garaileak direnak eta azaleratzen ari diren gizartearen eredu jarraitzen dutenak– arazo askori aurre egin behar diote*: Politika-absentismo maila altuei, komunikabideen bidezko manipulazio ezkutuari, hiritarren eskubideen zapalketari eta makroegitura politikoen sorrerari.

2.2. Azaleratzen ari den gizarte konplexu baten heziketa-erronkak.

Zoritxarrez, batez ere gerora begiratzen duen azaleratzen ari den gizarte konplexuan, gizarte industrialaren arazoek bizirik irauten dute edo, beharbada, areagoturik. Dударik gabe, jokaleku pribatuaren nahiz orokorraren aldaketa ezin daiteke heziketarako oharkabea igarotzen utzi, eta beharrezkoa da jasaten ari garen paradoxei aurre egitea. Erantzun-esparru horretan, hain zuzen, hezkuntza-afektiboaren aldarrikapena sortu da indarrez, besteak beste, erronkei erantzuna emateko..

2.2.1. Agertoki publikoan aldaketek ekartzen dituzten erronkak.

Azaleratzen ari diren gizarteak osatzen dituzten gizarte konplexuen, kulturantzen eta teknologikoen biziraupena kontrol teknologikoen, fundamentalismoak eta arazoak konpontzeko baliabide gisa bortizkeria erabiltzeak ekartzen dituzten arriskuei aurre egiteko praktika demokratikoen zaintza zorrotzaren mende dago.

- A. NASBITT, J (1983): *Macrotendencias: diez nuevas orientaciones que estan cambiando nuestras vidas*, Barcelona, Mitra
- B. DARENDORF, R (1992): *La democracia en Europa*, Madrid

Hirien, gizarte jendetsuen, komunikabideen eta gizarte industrialen –eta, are gehiago postindustrialek– garapenari lagundu dioten teknologiaren eta zientziaren hedapenaren eta abarren hazkuntzak eta zabaltzeak ez dutenez beti autonomia, parte-hartze kritikoa eta elkarbizitza baketsua ziurtatzen, ez da erraza demokrazia-balioak mantentzea.

Gaur eguneko belaunaldiek eta etortzeko daudenek aurre egin beharko diote agertoki konplexu bati, zeinak elkarrenganako egokitze-prozesu batera behartuko dituen kultur ingurune berri batera doazenak eta herrialde hartzaileak . *Hainbat kulturak elkarrekin bizitzeko dituzten arazoek* eta bizitzeko era desberdinek balio askotako norabideak har ditzakete. Egia esan, batzuk aniztasunarekiko errespetuak eta tolerantziak gidatzen dituen bitartean, beste batzuk kultur homogeneotasunetik xenofobiaraino edo arrazakeriaraino joan daitezke –sorrarazi ditzakeen arriskuak edozein izanda ere–, gehiengo kulturalaren ideiak jarraituz.

Boterearen pilaketak eta komunikabideen ekonomiaren pilaketak arriskurik gabe ez dagoen errealitate paradoxiko batera garamatzate. Alde batetik, komunikabideen eraginak *jendetzaren ikus-entzunezko kultura homogeneizatzailea eta kritikarik gabekoa* sortu du. Bestalde, ematen dituzten erraztasunak itxura hutsean geratzen dira gehienetan. Horrela, informazio-ugaritasunak ez du esan nahi zentzua duen irudi bat eraiki ahal izango dugunik. Egia esan, nazka, alferkeria, ondoeza, eta ezkortasun- eta paralisi-balio eta -jarrerak eragin ditzake informazio-gehiegikeriak.

Egoera horren aurrean, erakunde hezitzaileak eta heziketa komunikabideen eta teknologia berrien aurrean hezkuntza-ekintzaren monopolioa galtzen ari direla onartzea da aukera bakarra. Zentzu horretan, beharrezkoa da heziketa instituzionala berriz kokatzea dituen aukera hezitzaileak integratzeko aldaketen aurrean. Era berean, beharrezkoa da eragin ezkorrak indarririk gabe uztea, eta, horretarako, ezinbestekoa izango da gizarte zibileko ohikohezitzaileen(familia, eskola, komunitatea) arteko elkarrekintza.

2.2.2. Arlo pribatuan gertatutako aldaketek ekartzen dituzten erronkak.

Gizarte postindustrialak pertsonaren *bakardadearekin eta anonimatua*rekin erlazonaturik dauden arazoak areagotu ditu (askotan, lanean, ilara batean nahiz manifestazio batean aldarrikatzen diren trebetasun/ balio soziopertsonaletatik oso urrun geratuz, zenbaki soilak izatera heltzen gara).

Gainera, azaleratzen ari den *gizartea arlo pribatuaren eta publikoaren arteko mugak suntsitzen ari da*. Etxeko espazioaren eta eguneroko bizitzaren teknologizazioak ekarri ditu gizatasuna kentzearen eta bakartze sozialaren prozesuak ; era berean, komunikazioak eta garapen pertsonalak aldarrikatzen dituzten giza kontakturako aukera anitzen (aurrez-aurreko erlazioen bidez nahiz sare informatikoen bidez) eta espazioen eskaerak sortzen dira. Bestalde, informatikak informazio-sare heterogeneo batera sartzen uzten digu.

Egia esan, agertoki pribatu eta publiko konplexua da belaunaldi berriei ekimen pertsonala, parte hartzeko eta komunikatzeko gaitasuna, gaitasun kritikoa, eta adostutako erabakiak hartzeko gaitasunak lantzea eta, era beran, trebetasun sozialetatik bizitzako esperientzien egoeretatik eta ezagutza arloetatik ikastea eskatzen diena.

Dударik gabe, demokrazia ez da bukatu dagoen lorpen bat; esan dezakegu arlo guztietan –ez politikoan soilik; baita pertsonarteko eta taldeko erlazioetan ere– eman behar den eskaera bat dela, eta etengabe sortzen aritu behar duela. Azaleratzen ari den *gizarteak bizitza-aukera askotarikoak mahairatzen ditu*, eta, era berean, erabaki-hartze konplexuagoak dakartzaten parte hartzeko eta aukeratzeko aukera gehiago aurkezten ditu orokorrakoak diren adostasun moduak lortzeko helburuarekin,.

Arlo pribatuko eta publikoko eguneroko bizikidetzan eta jolasari nahiz lanari dagozkion talde-lanak parte hartzeko, komunikatzeko, eztabaidatzeko, kritikatzeko eta adostutako erabakiak hartzeko trebetasunen baitan daude. Arazoa da, salbuespen txikiak izan ezik, trebetasun horiek ez direla izan heziketa instituzionalaren xede.

3. Hezkuntza Afektiboa, zientzia- eta pedagogia-ikusmoldeetan gertatutako aldaketan testuinguruan.

Azken hamarkadetan gertatutako aldaketa sakonek ez dute gizartean soilik eragin; zientzia-zereginetan eta eskaera sozialei erantzuna emateko jabeldutako zientzia-ikusmoldeetan ere eragina izan dute. Gehienetan, erantzunak geldoak eta eskasak izaten dira. Baina, hala ere, ez dago aldaketak gertatzen direlako/diren dudarik. Heziketa afektiboari dagokionez, curriculum-proposamenak edukiz hornitzen dituzten hainbat ikuskeraren garapena ekarri du zientzia-ikusmoldeak malgutu izanak.

3.1. Zientzia-ikusmoldeetan gertatutako garapenaren oinarritzko jarraibideak.

XX. mendeko lehenengo hamarkadetan, zientziaren harropuzkeriaren aurrean aurkitzen gara, berariaz sistematikoa, objektiboa, kritikoa eta neutroa den ezagutza gisa aurkezten baitu bere burua zientziak. Zientzia horrela ulertzeak, beste zenbait ezagutzaren gainetik ezagutza zientifikoaren nagusitasunari buruzko aurreustez gain, metodologia zorrotz eta uniforme baten ezartzea ere badakar. “*Positibista*” deituriko zientziaren *ikusmolde* horrek enpirikoa, objektiboa eta errealista izan nahi duen jarrera bat hartzen du bere gain.

*IKUSMOLDE
ZURRUNA*

= ZIENTZIA= enpirismoa, objektibotasuna

Zientziaren ikuskera positibista zalantzan jartzen hasi zen 50-60ko hamarkadetan, zientziaren izaera historikoari eta erlatiboari buruzko kontuak azaltzen dituen ikuspegi berri bati bidea zabalduz. Erlatibizatzearekin, *muturrekoagoak diren beste jarrera* batzuetarako bidea zabaldu zen, eta horrek beste absolutismo bat ekarri zuen: muturreko erlatibismoa, zeina positibismoaren kontrako muturrean honako galdera kezagarri honekin agertzen baitaa : “Denak balio al du?”. Bi erredukzionismo horien arteko aurkakotasunei konponbideak aurkitzeko saiakerek ezartzen dute aro garaikidearen hasiera. Zientziari interesatzen zaizkion gaiei ekiteko moduen onarpen-garai bat zabaltzen hasten da, pixkanaka.

Oharra:

Paradigma:
Marko teorikoari eta metodologikoari dagokie. Zientzia egiteko –legezkoak diren- hainbat era daudela esaten du. Paradigma, beraz, “ikuskera zientifikoaren” sinonimoa da.

ZIENTZIA= IKUSMOLDE TEORIKOA eta METODOLOGIKOA

<i>POSITIBISTA</i>	<i>HERMENEUTIKOA</i>	<i>KRITIKOA</i>
--------------------	----------------------	-----------------

- 1) *Enciclopedia de las Ciencias Sociales*, 1968: 760
- 2) *Enciclopedia Internacional de la Educación*, 1990: 2928.

Datu objektiboek, behagarriek eta zenbakarriek ikusmolde positibistarentzat izugarritzko garrantzia izaten jarraitzen dute, baina beste planteamendu batzuk agertzen dira


Hermeneutikaren ikuskerak, zeinak existentzialismoaren eta fenomenologiaren jarrera filosofikoei esker indarra hartu zuen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, beste ezagutza era batzuk azpimarratzen ditu. Pertsonak antzeman, interpretatu, behatu eta bizi ditzaketen intentzio, arrazoi eta esanahiak azpimarratzen dira.

Ez dago mundu bakar eta objektibo bat, mundu- eta intentzio-aniztasun bat baizik. Errealitate objektiboarekin dagoen elkarrekikotasuna baino gehiago, adostasun kontu bat da baliozko ezagutza gisa onartzen dena.

Amaitzeko, ideologiak zientzian duen papera azpimarratzen da ikusmolde *kritikotik*. Egia esan, objektibotasuna ezinezkoa dela esaten da, pertzepzio eta kontzepzio guztiak gure balioak eta ideologiak direla medio neurtuak baitaude. Zentzu horretan, aurkikuntzak eta ezagutzen justifikazioak – zeinak ikertzaileak lanean ari diren testuinguru sozialak eta historikoak baldintzatzen dituen– ezin dira ikertzailearen ideologiatik bereizi..

3.2. Hezkuntza Afektiboaren garapena, testuinguru psikopedagogikoan.


Nagusitasuna lortzeko hainbat ikusmolderen artean egon den borroka etengabea izan da. Hala ere, gaur egun onartzen da ikusmolde bakoitzak pertsonarteko trebetasunen eta balioen garapen-fenomenoak ulertzeko beharrezkoak diren elementuak eskaintzen dituela.



Pertsonen moldaera funtzionala azpimarratzen dute teoria instrumentalek; beharizan, itxaropen eta trebetasun sozialekiko moldaera funtzionala, hain zuzen.

Marko horren barruan, testuinguruko aldagaien arabera (estimuluak, guretzat esanguratsuak diren pertsonen erreakzioak, eta pertsona horiek eskaintzen dizkiguten ereduak) azaltzen dute trebetasun eta balio soziopertsonalen garapena. Gizabanakoak bere jarrera auto-erregulatzeko duen gaitasunari eta bere jokaerak izango duten eraginei aurrea hartzeko eta haiengan pentsatzeko duen gaitasunari dagokionez, ez da ahazten pertsonak berak duen garrantzia.

IKUSPEGI INSTRUMENTALA



Teoria horien arabera, gizabanakoa ikaskuntza soziopertsonalen jabe egitea “pertsona esanguratsuek” betetzen duten paper garrantzitsuari zor diogu; hau da, benetan garrantzitsuak diren pertsonak burutzen duten paperari. Eragina bi elementuren bidez gertatzen da:


- 1) Gure jokaeren aurrean, pertsona esanguratsuek erreakzionatzen duten era dela-eta atseginak edo ez hain atseginak diren esperientzien bidez. Zentzu horretan, ezin dezakegu ahaztu zenbait jokaera ikasi eta beste zenbait ekidin egiten ditugula, jokaera horiek ekar ditzaketan ondorioen arabera. Sariak bilatuz eta ondorio ezatseginak ekidinez, trebetasun soziopertsonalen bilduma jakin bat ikasi dugu.*
- 2) Pertsona esanguratsuek eskaintzen dituzten jokabide- eta trebetasun-ereduen bidez. Pertsona batek dituen trebetasun soziopertsonalen bilduma ez dago haren esperientzia zuzenen baitan soilik; zeharkakoak diren esperientzien baitan ere badago. Egia esan, beste batzuek beren ekintzen bidez lortzen dituzten ondorio atseginak eta ezatseginak behatuz ikasten dugu ikasten dugunaren zati handi bat; “Ereduen bidezko ikaskuntza” da hori..*

Trebetasun eta balio soziopertsonaletan dauen arlo afektiboen papera azpimarratzen du Ikuspegi Humanistak. Pertsonarteko komunikazioari eta autoestimuaeren garapenari funtsezko garrantzia ematen dio.

TEORIA HUMANISTA

TESTUINGURUA

PERTSONA



Ikuspegi horren arabera, pertsona guztiok ditugu oinarrizko behar batzuk (eraginkorra sentitzea, besteek onartzea, egoerak kontrolatzea), eta behar horiek asetzen saiatzen gara. Egia esan, pertsonak bere portaerarekin aditzera ematen duenaren zati handi bat egiten duenarengan kontrola, eraginkortasuna eta besteen onarpena bilatzen aritzeak eragiten du.

Gizabanakoak inguruan dituen pertsona esanguratsuekin duen elkarrekotasunaren –edo, zehatzago esanda, pertsona esanguratsuekin duen komunikazioaren– baitan dago behar horiek maila altuago edo baxuago batean asetzea. Balantza baikorra den aldera okertzen bada, autoestimua pertsonala ona da; baina, alderantziz gertatzen baldin bada, autoestimua suntsitzen hasten da, eta trebetasun sozial / pertsonalak pobretzen dira.

Beraz, pertsona batek dituen trebetasun eta balio soziopertsonalen hedapena hein handi batean autoestimua baldintzatzen duela esan dezakegu.

Ikuspegi Eraikitzailea edo Konstruktibista eratzen duten teoriak –zeinak hermeneutikaren ikusmoldearen hedapenarekin garatu baitira– ikuspegi hori baldintzatzen duten prozesu kognitiboak nabarmentzen dituzte; hau da, errealitatea interpretatzen den era eta arrazoitzeko modua. Horrela, esperientziak ulertzeko eta interpretatzeko dugun moduak hein handi batean gure trebetasun soziopertsonalak baldintzatzen dituela esan dezakegu.

Azkenik, *Ikuspegi kritikoa* edo *Ezker Berriaren Pedagogia* dago, zeina paradigma kritikoaren adierazpen hezitzailea den. 60ko hamarkadatik aurrera sortu zen, eta 70ekotik aurrera indarrez garatzen hasi zen, Estatu Batuetan, Alemanian eta Hegoamerikan batez ere. Ongizatearen gizartearen krisiaren testuinguruan mahairatzen da teoria berri horren zeregina eta ametsa.

“Demokrazia parte-hartzaile bat” lortzeko helburua du Ezker Berriaren Pedagogiak; hau da, alderdi guztien adostasun osoko sistema bat, non gizabanako bakoitzak erabaki guztietan eskubide–berdintasunarekin parte hartzen duen. Izaera erreformista duten agindu liberal, demokratiko eta gizaldeko ugari sortzen dira eta, esparru horretan, Bakea lortzeko Heziketa, Erantzukizun Sozialerako eta Parte hartzeko Heziketa, Tolerantziarako Heziketa, Hiritarraren Heziketa eta Ingurune-Heziketa aurkitzen ditugu.

Egungo arazoetan parte hartzeko trebetasuna eta trebetasun demokratikoen garapena bultzatzen dituen heziketa baten bidez lortu den gizarte-aldaketa dela eta, hainbat izaeratako mugimenduekiko elkartasuna daukagu. Erantzukizuna, gaitasun kritikoa eta autodeterminazioa izan dira horretarako giltzarri nagusiak.

Jarduera: Irakurgai osagarria.

IRAKURGAIA: Gizarte-eskaerei emandako heziketa-erantzunak.

Erreferente sozialen hedapenak oso gutxitan islatu dira erakunde hezitzaileek transmititzen dituzten jakintza sozialetan; hori ez da gertatu ez gizarte industrialean, ezta egungo gizartean ere. Izaera gutxitua eta hedapen gutxi duten aukera hezitzaileak ekarri dituzte ia beti aldaketa sozialek. Ereduzaharren iraupena proposamen berriekin batera bizi izan da eta bizi da, eta egoera horrek paradoxa ugari ekarri ditu. Paradoxa horiek, bestalde, gizarte modernoek dakartzaten izugarritzko kontraesanak islatu baino ez dituzte egiten.


Iraganaren eta balio erlijiosoen balioespenak –zeina gizarte tradizionalen egiten zen– eredu sozial hegemonikoaren jokaerak berregitera bideratu zuen heziketa. Mugarik gabeko aurrerapenean sinesten duen gizarte berri eta laiko batera era funtzional batean egokitu ahal izateko, beharrezkoak ziren trebetasunak eta tresnak lortzera bideratuta zegoen heziketa aktibo bat proposatzea ekarri zuten gizarte industrialean gertatzen ari ziren etengabeko aldaketek zituzten eskaerak.

Modu baztertu batean, beste era/modu bateko heziketa baten proposamenak eta saiakerak –gutxi gorabehera sendoak– ezagutu zituen gizarte industrialak. Horrela, heziketa moderno baten –zeina une horretako egoerara era funtzionalen estuki egokitzera behartua zegoen– aurrean, heziketa berri bat azaldu zen; eta, heziketa berri hori, bere aldaeretan, gizarte berdintsuago eta bateratuago baten eraikuntzarantz eta gizakiaren gaitasun guztien askatasunera bideratua zegoen.

Hala ere, gizarte hegemonikoaren eredia berregiten zuen; esana egitean eta errepikapenean oinarritutako heziketak zirauen. *Zoritxarrez, lantegietan lan egiteko oso ondo prestatzen du jendea errepikapenezko eta oroimenezko heziketa horrek, baina gizarte industrialaren beste erronka batzuetarako ez du behar bezala prestatzen.*

Industria-garaiaren ondorengo gizarteetan ere antzerako zerbait gertatu zen. Sarritan, hautazko proposamenekin batera proposamen tradizionalak nagusi izaten jarraitzen du oraindik.

EREDUA



Ikuspegi konplexu horren aurrean, heziketa eredu bakar baten beharra erraz ikusten da. Gizartean dauden aukerak eta gatazkak islatzen dira heziketan, eta gatazka horiek areagotu egiten dira aldatzen ari den gizarte anitz eta zabalean..

Beraz, beste heziketa modu batzuen proposamenen bidegurutzean gaude: prestakuntza orokorra (kultura entziklopedikoa) ala espezializatua (diziplinakoa), prestakuntza klasikoa ala teknikoa, aisialdirantz ala lanerantz bideraturiko heziketa, edo erudiziorantz ala bizitza (ekintza) sozialerantz (hiritarren prestakuntza) bideraturikoa.

Homogeneizatzea geroz eta handiagoa den une honetan dagoen joera sendoenetariko bat da *mugimendu nazionalistek* identitate kulturalak mantentzeko (lokalak, lurraldekoak nahiz nazionalak) aldarrikatzen dutena .

Beste *joera* bat da gauza *oinarrizkoetara itzultzea* defendatzen duena. Ezagutzen eztanda gertatzen ari den” garai batean, eta, era berean, horrenbeste kulturaren artean “oinarrizkoa” zer den aukeratzeko arazoak daudenean, paradoxikoki, jaraunspen kulturala biziberritzearen erreproduzioaren garrantzia nabarmentzen du joera horrek.

Heziketa kulturalista eta klasiko horren aurrean agertzen dira eguneroko bizitzarako orientabide bat proposatzetik gure garaiko arazo sozialei erantzuna emango dien heziketa bat (trebetasun soziopertsonaletan prestatuz, batez ere) proposatzera heltzen diren hautabideak. Era berean, egokiak izango diren hizkuntzak eta tresnak erabiltzea eta ezagutzea erraztuko diguten heziketa teknologikoen proposamenik ere ez zaigu falta.

Autorea: Rafael López

Nork bere burua ebaluatzeko jarduerak

Egin ezazu mapa kontzeptual batgaiaren ideia nagusiak laburbiltzeko .
Kontuan izan, helburuetan azaldutako lehenengo bi galderari erantzutea
dela hori egitearen xedea..

Bibliografia

Oinarrizkoa.

- LÓPEZ ATXURRA, R. (1996): “Fundamentos socioculturales del currículum”, *Didáctica de las Ciencias Sociales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 4. kapitulua,
- Enciclopedia internacional de la Educación*, (1990), 2928.

Osagarria.

- CAMPILLO, A.(1985): *Adiós al progreso*, Barcelona,Anagrama.
- DARENDORF, R. (1992): *La democracia en Europa*, Madrid.
- Enciclopedia de las Ciencias Sociales*, (1968), 2928.
- FAURE, E. (1973): *Aprender a ser. La educación del futuro*, Madrid, Alianza Universidad.
- MALLART (1931): *La Educación activa*, Barcelona, Labor 50.
- MORIN, E. (1994): *Introducción al pensamiento complejo*, Barcelona, Gedisa.
- NASBITT, J. (1983): *Macrotendencias: Diez nuevas orientaciones que están transformando nuestras vidas*, Barcelona, Mitra.